

2020

DK memoria

Jaialdia
DKLUBA





Sara Zozaya.



Grises.

D **Kluba** programak Donostiako auzoetako musika eskaintza dinamizatzeko helburua du, tokiko taldeen parte-hartzea sustatuz, bereziki. Hiria bera musikan erreferente bihurtzea da helburua, talde berriak aurkitzeko, artista ospetsuen bisita jasotzeko eta bertako talentua modu naturalean hazi ahal den tokia izateko.

Lankidetzat du oinarri (administrazio publikoaren eta erakunde pribatuen artean), musika emaldi komertzialak ez bezalako ekitaldi alternatiboak programatzeko eta bertakoa aintzat hartzeko xedez (hala musika taldeei dagokienez nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarten lanari dagokienez).

Dklubarentzat urtea gogotsu hasi zen eta neguan programatutako kontzertuek Intxaurren Kultur Etxeko aretoa bete zuten. Urtarrileko lehen kontzertuan, **Los Zigarros** eta **Radiocaster** taldeak izan ziren, eta sarrera guztiak agortu ziren taldeen arrakasta islatuz.

Hala jarraitu zuen otsailean, **Musikagela Weekend** jaialdiaren 10. urteurrenarekin, non **Sex Museum** madrildarra izan zen talde nagusia eta **The Blackfeet** eta **Glory Howl**

tokiko talde gonbidatuak. Gros auzoko tabernetan **Mikel Karton** eta **David Grajal**en kontzertuak ere izan genituen, tokiko talentua auzoetara eramateko lanean jarraituz.

Ondorengo kontzertuak ere arrakastatsu zetozen eta **ETS**-ren kasuan otsailerako sarrerak **agortuak** zituzten, baina **osasun krisiak kontzertuak jendaurrean egin ahal izatea eragotzi zuen. Martxotik ekainera ezin izan zen zuzeneko musika emanaldi profesionalik antolatu** eta musikarien agerraldiak euren etxeetako balkoietara eta internet bitartezko emisioetara geratu ziren mugatuak.

Ekainean berriro kalera ateratzen hasi arren, egoera berriaren segurtasun baldintzak oso aldakorak izan ziren uda guztian zehar eta, ondorioz, urtero antolatzen genituen jaialdi jendetsuenak bata bestearen atzetik **bertan behera** geratzen joan ziren: Loiola kaleko **Musikaren Eguna**, zentroan egitekoa zen **Musikagela Fest**, Cristina Enea parkeko **Glad is the Day** eta Miramongo parkean egitekoa zen **Basoka**.

Zirkuituaren jarduera ez zen udazkenara arte berreskuratu ahal izan eta, beti ere, Covid-19ari aurre egiteko

neurrietara egokituta, besteak beste, mugatutako edukierekin eta ikusleak eserleketan eserita. Hala ere, publikoak berriro gogotsu erantzun zuen egoera ezberdin horretan.

Urrian **Donostikluba Festivala**

izan genuen Intxaurren eta bi egunetarako sarrerak agortu zituen. Ostiralean auzoko **El Negro** eta ez oso urrutiko **Latraku** aritu ziren musika urbano berrietan Intxaurren Kultur Etxeak zer eskaini dien argi utziz. Larunbatean **Chaqueta de Chándal** eta **Grises** taldeek bestelako estilo batean kontzertu ederra eman zuten, bertaratutakoaren gozamenetarako. Jarraian, **Revolution Jamrock Donostia Reggae Festival**-ak bere burua berrasmatu eta jaialdia bi data ezberdinetan eskaintzeko apustua egin zuen: azaroan **Live** formularekin **Emeterians & Forward Ever Band**-ek zuzeneko itzela eman zuen eta abenduan, **GabON Reggae** formularekin eta sound system estiloan, **Revolutionary Brothers** bikotea jardun zen tokiko hainbat artistekin batera.

Ezin ahaztu ere bi emanaldi horien artean **Sara Zozaya** aritu zela azaroan, eta berriro sarrera guztiak agortu zirela.

Urtea amaitzeko, **DKluba** zirkuitua, hiriko **musika areto pribatuen jarduera berreskuratzen laguntzeko** asmoarekin, hainbat kontzerturen antolaketan parte hartzen hasi zen berriro. Horrela, abenduan **Pedro Pastor** eta **Ketekalles** taldeak izan ziren **Dokan**, eta 2021erako **Dabadaba** eta gainerako aretoetan emanaldi gehiago aurreikusitako ditugu.